

# Bost urteko su-eten konplikatu

**A**rtikulu hau idatzi dudan unean oraindik ez da Frantziako hauteskunde presidentzialen bigarren itzulia izan. Halere, inkesten arabera, Emmanuel Macronek Frantziako presidente berria izan beharko luke. Bruselan pozik egongo dira urteko bigarren *match point*-a salbatu dutelako. Herbehereetako kasuan bezala, bakar-jokoan tranpak eginez bada ere, europar teknokraten bulegoetan arnasa berreskuratzen laguntzen dien haize ufada bat sentitzen arituko dira orain.

Macron Frantziarako Matteo Renziaren bertsio hobetu bat da, nahiz eta alboan alderdirik ez izan, hedabideek eta *establishment*-ak ondo dopatu dute eta horri esker, gutxienez hauteskundeak irabazita iritsiko da boterera. Macron politikari berri bezala saltzeko egin duten marketinaz harago, orain arteko politikarekin jarraitzeko bide zuzenena ordezkatzeko du, muturreko zentrismoa: ekonomian neoliberalismoa bortitza finantza munduaren mesedetan eta balore kulturaletan azaleko progresismo kosmetikoa indibidualismoaren zerbitzura, dena europazaletasunez apainduta.

Pozak ez du luze iraungo. Lehenengo itzuliko emaitzen arabera, ezkerretik zein eskumatik euroeszeptikoek eta *establishment*aren aurkako hautagaiak direnek botoen %48,41 lortu dute. Horiez gain, François Fillon, Benoît Hamon eta Jean Lassalleren artean %27,58 lortu dute, hirurak *establishment*ari aurre egin eta egungo Europar Batasuna errealekin kritiko samar agertu diren hautagaiak. Bestalde, Macronek botere faktikoen babesarekin botoen %24,01 atera du alderdien logikatik aldeniduz.

Bruselak mespretxatu duen ezker-eskuin borrorak salbatuko du *match point*-a, ezkertiarren gehiengo zabal batek ez baitu Marine Le Pen babestuko. Halere, Fronte Nazionaleko hautagaiak



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Alderdi biko sistema gaixo dago, lehen itzulian lehen lau hautagaiak %5eko diferentzia tartean egon ziren. Gauzak horrela, hirugarren itzuli papera betetzen duten Asanblea Nazionalerako ekaineko hauteskundeak buruhauste handia izan daitezke Macronentzat. 577 diputatu hautatzen dira izen bakarrek barrutietan

aterako duen emaitza pentsa ezina zen orain 15 urte Jean-Marie Le Pen eta Jacques Chirac lehiatu zirenean.

Frantziako hautesleriak FN balioztatu du boterera iristeko. Seguruena biga-

rren saiakeran ez du irabaziko, baina hurrengo bost urtetan Parisen eta Bruselan orain arteko politikek jarraitzen badute, litekeena da hirugarren saiakeran FNk ez huts egitea, betiere *Frantzia Intsumiso*arekin lehiatzen ez badu, kasu horretan Jean-Luc Mélenchon-en mugimenduak irabazteko aukera gehiago izango lituzke.

Aurtengo sorpresa izan da *Frantzia Intsumiso*a, hauteskunde kanpainako inkesten arabera egunak aurrera egin ahala hazkude handiena izan duen aukera politikoa izan da. Europako alderdi progresistek lezioa eman diete. Muzin egin diote ezkerrearen nortasun eta aldarrikapen historikoak ezkutatzeari egokitasun politikoaren diskurtsoaren izenean. Beldurrik gabe errebindikazio historikoak berreskuratuko eta aldarrikapen berriekin josi dituzte lau haizeetara zabaldu duten programa eraldatzaileekin. Beraz, Macronek ezkerretik eta eskumatik oposizio gogorak izango ditu.

Alderdi biko sistema gaixo dago, lehen itzulian lehen lau hautagaiak %5eko diferentzia tartean egon ziren. Gauzak horrela, hirugarren itzuli papera betetzen duten Asanblea Nazionalerako ekaineko hauteskundeak buruhauste handia izan daitezke Macronentzat. 577 diputatu hautatzen dira izen bakarrek barrutietan. Lehenengo itzulian inork ez badu ateratzen botoen %50 baino gehiago, %12,5 lortu duten hautagaiak parte hartu dezakete bigarren itzulian. Horrek esanahi du, Alderdi Sozialistaren *pasokizazioa* berresten bada, bigarren itzulian barruti askotan lau hautagaik lehiatu ahal izango dutela. Boto sakabanaketa horrek V. Errepublikako zatikatze parlamentario handiena duen Asanblea Nazionalekar lezake. Testuinguru horretan, osatuko den gobernu oso ahala izatea espero daiteke. ■